



Mantun plaza



DIRECCION GENERAL DE MEDICINA DE
COMUNICACION SOCIAL

PERIFERICA

Entregados ejemplares

ALGORTA
GOTIK
IKUSIA

12/07/86
Juhi

UDABARRIAN

Udabarrian, izadia berbiztu ta barriztu egiten dan antzera gizakiok be berbiztu egiten gara, pizka bat beintzat, besterik ez bada soiñez, udabarriak odolbarritu egiten gaitulako izadia kimu-barritzen dan antzera.

Aurtengo udabarri onetan, baiña, alan bearrik edo, barrizketa asko ta garrantzizkoak izan doguz Euzkadi'ko Ego —alde onetan—. Or daukagu Euzko Lage-Biltzar barriztua, barria ezin geinke esan aurreko Lage-Biltzarrean egondakoak diralako orain bertan aurkitzen diran Aldun asko. Or daukagu lengo Lendakaria, baiña Euzkalerriak barriz aututakoa, bere inguruan lengoak eta aberkide barriakaz ornidutako jaurlaritzak dauala eta, eurok edo Lendakariak adierazo dauskunez, Euzkadin zati aberatsau kemen guztiaz jaurtu ta goraltzeko asmu biaz.

Berbizte ori, baiña, arlo guztietan ikusi nai genduke; lugintzan, etxegintzan ta beste langintzetan, euzko-jakintzan eta batezbere euzkera-arloan, sarritan esan dan lez, euzkera dalako euzkotarro nortasunik geien emoten dauskuna. Egia da, asko egin dau Euzko-Jaurlaritzak igarotako lau urte orreitan, arlo guztietan edo geienetan, gurarizko itsuak ikusi nai ez badabe be, baiña, askotaz geiago egin bearrean gara, eta egingo dalakoan gagoz, asi-barri dan agintza barrian.

* * *

Lenago esan dogunez, arlo guztietan alengindu da Euzko-Jaurlaritzak eta, euzkera arloan, gure izkuntza au bultzatzeko txinditzak eralgi ditu, baiña, gure uste apalean, ez dira bear-ziran bestean gozatuak izan, ez dabe bear zan aurrekuntzarik egin, bear bada alderdi-

keri pizka bategaz ibilli diralako arlo orren arduradunak. Lenen, EUZKERA'ren aberatstasuna diran euzkalkiak, aberatsenak, baztertu eta erriak mintzatzen ez dauan izkuntza asmatuzko izkera naitaez sartuazo daualako, bai Euzko Ikastoletan, bai Euskal Urrutikuskiñean (txarto euzkeratuta Telebista) eta bai Euzko Jaurlaritzaren babespean edo laguntzaz argitalduten diran aldizkari ta idazki guztietan.

* * *

Zer da besterik, euzkotar guztion txindiakin eta entzun nai daben entzule guztientzat sortu zan Euzko Urrutikuskiña, bizkaierazko itz bat bere entzuten ezdana, geien baten euzkera mordolloa geienetan bear ez dan aldi eta lekuan darabillana? Orixe bai, geienetan gipuzkoera, baiña, zelango gipuzkoera?, “akordioak”, “erreflexinoak”, “errefuxiatuak” eta abar luze bat. Jokabide ori ez da euzkera aberastuteko biderik egokiena, itsusitu ta txirotzeko baiño.

Euzkera indar-barritu bear dogu baiña, ez erdel itzak sartuta, erri-euzkera landua idatzita eta erabillita baiño. Sabin gure Irakasleak nai eban guztiz garbia ez bada be, erriak darabillen izkera orraztuta, landuta, entzuten dogun baiño euzkera geiago entzun daigun.

Euzko Alderdi Jeltzaleak euzkera arloan azken aldi artu dauan baiño ardura geiago artu bear daualakoan gagoz, Sabin'en doiaren jarraitzaille izanik, bere etsaiak nai dabena egin ez dagieñ Sarritan esan oi-dan lez ez dago benetako Euzkadi'rik euzkera barik.

ALTUNA'tar JOSU

BIZKAIATARRAI BIZKAIERAZ (ASTEA)

Auxe da aspaldion geutzat artuta daukagun jokabidea: "Bizkaitarrai bizkaieraz", baiña zori txarrez esaldi ori ames eta eskari biurtu jaku. Gure izpar-ingi ta aldizkarietan, gure irrati ta urrutikuskiñetan, len baiño geiago entzun eta irakurten da euskerea, baiña, zori txarrez bizkaiera geroago ta gitxiago. Ze pekatu egin ete dogu ain baztertuak izateko!

Dana dala, guk geure jokabidea aurrera eroango dogu.

* * *

Orregaitik eratu genduan bizkaierearen astea, eta ez daukagu damurik, poza baiño. Bilbo ta inguruetakoko euskaldunak, bizkaieraz berba egiten dabenak, ondo erantzun dautsoe gure aste oneri. Eskolapioen Ikastetxean, areto egoki ta ederrean, egunero izan doguz irurogei entzuletik gora eta egun batzutan zenbaki ori bitu egin da eta eun da ogei batu gara. Eta ori egualdiak oso txarrak, euritsuak eta otzak izan dirala.

* * *

Bizkaitarrak euren izkuntzaz egin dabezan olerkiak, eleiz-ikasbideak, elebarriak eta antzerkiak zeatz eta zabal aztertu doguz egun orreitan, eta azkenengo egunean eskribauak dabezan arazo larri ta sakonak be aztertu al izan doguz. Gaiak jakingarriak ziran eta izlariak egokiro azaldu ebezan.

Olako ekintzak gertatzea ez da izaten lan itxaropentsua, erantzuna zelakoa izango dan jakitea be, aurretiaz, ez dalako erreza izaten, orregaitik gauzeak ondo urteten dauanean, poztasun berezia izaten da.

* * *

Berbaldi orreik guztiontzat dirala jakingarriak uste dogu. Baiña askok ez eben entzutera joateko erarik be izango, beste askok berbaldi orrein laburpena eskuratu nai leukeela be esan daskue. Bost berbaldiok osooan argitaratzea erabagi dogu ba, eta aurtengo urtea amaitu baiño lenago gure irakurleen eskuetan izango dira, bear ba'da ZER aldizkari onen zenbaki batzuk batu eta zenbaki lodi eder bat eskintzen dala, eun bat orrialde-edo izan daikezana.

* * *

Eta ondorena ain baiezkorra izan dala ikusirik, urrengo urtean be antzeko beste aste bat eratzeko ustea daukagu. Orretarako aurten izan diran okerren batzuk zuzendu bearako dira, batez be gaiak entzuleen aurrean alaiago ta gozatsuago agertzeko bideren batzuk artuta.

Aurten izlari batzuk ezin izan dabe itzaldirik egin oztopo berezi batzuk izan dabezelako. Orreik datorren urtean izango dabe aukerea.

* * *

Bejoakez eskerrik beroenak ZER gure aldizkari onen bidez ain gogotsu berbaldietara etorri diran entzuleai, ain ederto gaiak gertatu ta azaldu dabezan izlariak, zabalkundea ain egokiro egin daskuen irrati ta izparringiari eta zelan edo alan laguntzaille izan doguzan guztiai.

Eta urrengora arte. Bizkaitarrai bizkaieraz.

ABEREEN ARTEAN (ABEREA-DOT)

Abereak, etxerako ezita dagozan piztiak, maite dodaz nik.

Ez dot aitzu, ez eta iñoz aitzuko be, Txato txakurra: Aundia, ulegorria, zur-inguru txiki ta baltza, buztana ebagita... Txato kateaz lotuta dago ate-aurrean eta kanpotarren bat etxera urreratzen danean, eltzeko irureun neurki inguru egiteko dagoanean, Txato ausika asten da eta etxe aurrera urreratzen danean, kate ta guzti, bira-biraka, ausika isildu barik eta kanpotarra lar urreratzen ba'da bere agin zorrotzak sartzen dauz. Baiña ori jazo baiño lenago, kanpotarra ezaguna ba'da, aitak edo amak katetik oratuta atzeratu egiten dau Txato, kanpotar ezaguna etxera sartu daiten.

Gudaldia izan danean guk guztiok kanpora urten dogu eta Txato etxean geratu da. Gudaldia igaro ondoren etxera etorri gara eta Txato ez dogu aurkitu ate-aurrean. Beste etxe bateko begirategian euki dabe ille bi-inguruan eta gero aske bere burua ikusi dau egunen baten eta arin etorri da bere lengo etxera.

* * *

Negu-aldian ardiak etorten dira gure etxera, Gipuzkoa'ko artzain bat aurrean dala. Pozik ibiltzen naz ardi-tokian ardien artean, pozik bildots zuriak jaioten diranean.

Etxe-inguruan oilloak ibiltzen dira aske eta neu izaten naz euren ardurea daukadana: Oilloa sasi-inguruan abeslari dabilenean, bere abia billatzera joaten naz eta sasi-arteaz pozik aurkitzen dodaz arrautzak. Iñoz abia aurkitu ez dodalako ollolokea etorten da jaten. Zelatau egiten dot abia non dagoan jakiteko eta antxe iru aste igarota txitak ateraten dauz eta oneik euren ameagaz etorten dira etxera jateko.

Etxe-inguruan oilloak arrautzak egin dagiezan abiak ipinten dira, etxe-aurrean, laba-aurrean, labagaiñean, laztategian, ormaziñetan... eta oilloak ara joan daitezcan arrautza antzeko edo arrautza galduak diran abisariak ipinten dira.

Gudaldian etxetik joan garanean oilloak geugaz eroan doguz, eta asko eroan be, larogetik gora, baiña moroak arrapau dabez geienak. Iru geratu dira etxerako eta iruretatik bat laban erre da, beste bat lukiak jan dau eta irugarrena il egin da. Urte txarra, guda-urtea.

Oillo lokak zaintzeko toki berezi bat daukagu. Gaur oillo lokea ara sartzera joan naz eta oillarrak lepo-ganetik salto eta pikeka egin dau nire zurrean. Betiko zauria edo zauri-ondorena itzi dau nire zur-gaiñean.

Kortan beiak, txalak eta alboan, txarri-tokian, txarria dagoz. Nire aitak antxe egiten dauz bear-ordurik geienak: Jaten emon, azpiak atera, eznea eratsi, beiak

barrotira atera edo ura edaten eroan, eta olakoak. Guda-ostean bei barri bat erosi dau aitak, suiza-beia, eta milla lauerleko ordaindu dau: Bei batzuk suizak izaten dira eta oneik lan ondo egiten dabe, urtean txal bat egin be bai baiña ez dira eznetsuak; beste batzuk olan-darrak izaten dira eta oneik lanerako txarrak dira, buztarria gorroto dabe, baiña urtean txal bat egiten dabe eta eznea be geiago emoten dabe.

Etxean katu bi edo iru eukiten doguz, saguak eta arratoiak galtzeko. Katuak otzanak eta lagun onak izaten dira, baiña katarrak okerragoak, batez be euren aurka asi ezkerero. Katar bategaz estualdi aundia izan dogu.

Aspaldiko urteetan untxiak be ba-daukaguz eta jateko gozoak dira. Oillaskoak eta untxiak iñoz saldu be egiten doguz azokara eroanda.

Etxe-inguruan txori asko ibiltzen da, batzuk kalte gitxiago egiten dabe, baiña beste batzuk txarrak dira. Mirua, esaterako. Zelako estualdiak izaten dauzan oillo lokeak txitak kentzen mirua etorten danean! Txitak sasi-artera sartzen dira amearen esana egiteko, baiña ameak miruagaz asarre ta burruka-aldi aundiak izaten dauz.

Eta orrelantxe doaz egunak eta gauak gure etxean, bakean eta pozean.

MARTINTXU

AZTIZGO MIKEL AINGERU

Urte asko dira Migel Angel ezagutu genduala, Xabier Peña gure adiskide aztu eziñekoa bitarteko zala. Egun illunak eta latzak ziran euskal usaiñik eukan edozelako folklore, ertilan, kultur erakusketa ta batez be gure izkuntzarentzat, euskerarentzat. Orduan ixilleko lanetan genbiltzanok, andik edo emendik aberri-gallurra erakutsi naian, ainbat abesti, dantza ta euskal irudizko jaialdi gertatu genduzan urtero Campos, Ayala ta Arriaga antzokietan, oztopo asko ta asko gaindu ondoren eta salaketa bat baiña geiago leporatuta.

Iñoiz bear ziran baimenak lortzeko ta beti, beti, jaialdiak aizetzeko Aztizgo Mikel Aingeru gertu euki genduan.

Gerotxuago euskerazko antzerkiekaz asi giñanean, Bilbo'ko Arriaga'n, Labayen'en Ostegun Gizona ("Eguen Zuri") ta Ziarsolo'ren "Gogozar" antzestu genduzan Mungi'ko antzelariekaz. An agertzen zan beti Mikel Aingeru irriparretsu zorionak

emon ondoren urrengo egunean izparringian lana txalotzeko, naizta ulertu eziñik alegiñak egiten egon. Ez geuntson iñoiz ezer txarrik, ezer iñori leporatzen entzun, ezte bere areriorik ezagutu bere.

Bera konturatzen zan nortzuk giñan eta zergaitik lan egiten genduan baiña ez euskun iñoiz mesederik ukatu. Ez zan gure eretxiekin beti konforme egongo, bear ba'da, baiña zalantza barik gutzat errizale amorratua izan zan; ekintzetan eta ez politikan eza gutzen dira gizonak eta ekintzan abertzale izan genduan gure napartar adiskidea.

Bene-benetan naigabetu gaitu gizon jator onen uste bako eriotzak. Apal eta ixil-ixillik bere Nafarroako ikurra dan arrano baltzak bezela egoak zabaldu eta azken egaz-aldi luzea egin dau zerurako bidean zear. Agur lagun, egun aundira arte!

ARENAZA TAR JOSU

EUSKERAZALEAK IPUIN-SARIKETEAK

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK izendaturiko Epailariak egin dabe euren azken-batzarra IPUIN-SARIKETA'ren sarien irabazle nortzuk diran agertzeko eta au izan da ondorena:

1.º Saria: 40.000 pezeta... Bergaretxe'tar Jon Joseba jaunari.

2n. Saria: 30.000 pezeta... Zubikarai'tar Augustin jaunari. jaunari.

3n. Saria: 20.000 pezeta... Erkiaga'tar Eusebio jaunari.

Lanaren bikaintasuna ikusita, urreratze-saria edo "accessit" sortzea erabagi dau Maiak eta onen irabazlea ta ezarri jakon saria oneik dira:

Urreratze-Saria: 10.000 pezeta... Lejartza tar Sebastian jaunari.

Lan saritu oneik urrengo ZER Aldizkarian argitaratuko dira. ZORIONA IRABAZLEAI!!!

EUSKERAZALEAK

Samintasunezko oarra: Ondoren au irarkolan egoala eldu jaku Zubikarai tar Augustin'en emaztea ta Erkiaga'tar Eusebio'ren arrebea izan danaren eriotzearen albistea. Lankide ta adiskide maite doguzan idazle jator bioi gure samintasuna agertzen dautsegu. Adoretsu ta itxaropentsu izan, adiskideok, eta samintasunean naiz poztasunean ez aitzu erriaren deia, jarraitu zuen laguntza goragarria eskintzen. Goazen Euskalerrian betiko Aberrirantza.

ERIoTZA BAT GEIAGO

*Gure gerratean sortutako historia zeatza eta egi-
tan gertatua. Neoneri gertatutakoa...*

—Eme a, ma; eme i, mi; eme o mo...

Donostiako kuartelean nengoan alfabetatze-lanean: soldadu aiei irakurtzen erakusteko asmoz, Analfabeto utsak ziran. Ni, berriz, apaizgaia eta apaizgoa artzera niñoian egun gutxi barru. Gerratean izan arren, zortzi eguneko baimana eskatuta neukan, gogojardun edo ejerjizio espiritualak egin eta apaiz egiteko.

Amaren poza etxeratu nintzian. Bazkaritako eldu nintzan. Kafea artuta baratzara jatsi nintzan. Gure atarian norbait zebillen eta nengoan tokitik entzun nitun zaratak:

—Ama, ate —joka norbait.

—Irigi jok atea.

—Zer dozu? Esan neutson karteroari.

—Telegrama bat frentetik.

Biotza gelditu jatan seko. Atzak dar-dar, irigi neban paper urdiña: “Koldo illa Picos de Europako mendietan”.

—Erakutsiak paper ori!

Begiak lurrean erakutsi neutson amari telegrama ura. Aulkitxo batean eseri zan. Ez bait eutsoen oiñek gorputzik eusten...

Amak negar.

Begiak legor neukazan. Atsekabea biotzean:

—Ez negarrik egin, ama.

—Ez negarrik egin...! Oiek al dira ama bateari esateko itzak...? Ez negarrik egin... Zer egin bear dot, ba...? Jauna, egin bedi zure borondatea...

* * *

Koldo zein zan?

Koldobika ipiñi eutsoen izena bataioan. Nere anai gazteagoa. Eskola-maixutarako estudioak aspaldi egiñak zitun. Oso gazterik. Gerrateak frentera eroana zan aspaldi. Frentera ezker bein etorri jakun etxera egun bakar baterako...

Mutil normala genduan, lagun-arte jatorrekoa, nabarmen kizunik gabe. Gerratera dei egin eutsoen eta gudara joan zan. Amalau illabete, soldatu jantzian, eroiazan, albiste txar ura gure etxera aldu zanerako. Amalau illabete aietan bein bakarrik ikusi genduan danok etxean. Ekazan jantzi guztiak baratzean itzi zitun, barrura sartu baiño leenago. Soiñetik kendutako jantzietan, kamioi baten antzeko zorri baltzak ugari...

* * *

—Osaba, lagunduko daustazu Koldoren gorputza billatzen...?

—Baiña, aurretik automobil bera dogu...

—Eta, nun billatu automobilik...?

Ez zan gauza erreza egun aietan berebil bat billatzea! Orduan egozan apurrak etenik gabe zebiltzen frentera bidean mutil gazteen gorputzen billa... Ogeita hamar kilometro inguruan aurkitu genduan bat, orratio. Gure zoriona. Milla kilometro egiñak zitun berri artan eta ez genion deskansurik emon. Unerik gabe artu eta gurekin eraman genduan beste milla kilometro egitera...

Santa Teresa egura zan.

Urrilak 15.

Urtea 1939.

Egunguentia baiño leenago urten eta arratsaldeko bostetan eldu giñan Picos de Europa inguruko errikka batera. Mendi gorri izugarriak begien aurrean. Itsura zaarreko dozenerdi bat etxe ziran erriko etxe guztiak. Batalloia billatu bear nuan. Etxe zaar aietako batean zegoan Batailloiko sarjentoa, gaxorik, pasilloaren muturrean lurrean eserita. Beraren inguruan kabo eta soldadu bat. Iru lagun:

—Koldo Arrinda'ren berri jakin nai genduke.

—Bai, kanpusantura ekarrita daukagu. An dago eortzita.

—Noiz ilda?

—Ziur ez dakigu. Lau egun dira gorpuak bialdu euskuetzela...

—Nondik bialdu...?

—Menditik beera bota zituen eta or egon dira, iru egun oso, eriak eta illak alkarrekin sakon batean... Eurakana ezin joan izan gara.

—Bide-erdian, ala nola egozan ba...?

—Sakon bateko erdi-bidean egozan alde batetik eta bestetik; an egon dira iru egunez eun eta amairu lagun. Batzuek eriak baiño, bizirik eta besteak ilda billatu doguz.

—Erakutsi eidazu illerri ori nun dan, gorputza jasotzeko.

—Onek lagunduko dautzu.

Soldaduak lagundu eustan kanpusantura. Osaba ere nerekin zebilleen batetik bestera. Kabo bat egoan an illerriaren zaindari eta nere gogoan agertu neutson:

—Ez dakit ziur nun sartuta egongo dan. Eskubiko zulo onetan amaika gorputz dogoz eortzita; ezkerrekoan, berriz, zazpi.

—Gorputzei ezaugarriak ipiñi dautsozue: medaillaren bat bere zenbakiakin, botilla utseren bat bere izenakin papertxo batean...?

—Ez, ez dautsegu ezertxo ere ipiñi. Zu anaia bi zulo auktako batean dago.

—Zein zulután dan ez dakizu...?

—Ez. Eskubikoan, amaika; ezkerrekoan, zazpi... Nundik asiko naiz?

—Geiago dauden zulutik asi, aukera ohea izango dogu or.

* * *

Nere osabari begiratu bat emateko burua alderatu neban, zer iruditzen jakon galdetzeko; baiña, alperrik alde eginda zegoan... Arnasik ez egoera ura aurrera eroateko... Bakarrik gelditu nintzan. Biotza neukan zintzurrean eta urdailla oiñetan.

Atxurak lurra, lur beltza, urratzen asi zan. Laister agertu zan gorputz bat. Atera eben kanpora, arpegia eta soiñekoak lurrez eztaleta:

—Ez, ori ez da.

Kaki jantziak berriro lurrakin naasi:

—Ez, ori ere ez.

Irugarrena agertu zan.

—Ez, ori ere ez.

Laugarrena... Bosgarrena...

—Ez, ori ere ez.

Seigarrena manta batean batuta atera eben eta oiñak eukazan eztagarritik kanpora:

—Orixe da!

Ekarri eusten aldamenara eta eztaikia kendu nion arpegitik. Umeak giñala, Lekeitioko kaiean, armailla batzuetan goitik-beera erorita, okozpean ebagi baten arrastoa eukan. Uraxe ikusi nai neutson, naiz-eta nik arrasto, orren bearrik izan ez nere anai Koldobikaren gorputza ezaguteko: bistan etozen oiñetako beatz lodietan antz eman nion bera zala. Biok genduzkan beatz oiek berdin-bardiñak.

Zillarrezko bost duro aundi emon neutsozan illerri-zaindariari eta besterik gabe jaso nuan gorputza automobillera, bertan genkarren il-kutxara. Ordu bete baiño leen bukatu ginduzen lan guztiak. Egia esan, lapurretan bezala genbiltzan, iñori iñungo baimenik eskatu gabe.

* * *

Gogoia neukan pakean eta pozik amari gorputza erote nere eskuetan egoalako eta une artan arentzako gauza pozgarriagorik ez bait zegoan iñun ezer... Zenbat amak geltzen zituen semeak eguneroko burruka larri aretan eta sekulan ez dabe jakin nun eta nola. Semea galtzea da bat eta bere gorpua nun dan sekulan ez jakitea, beste bat. Nik ordu betean nun eta nola il zan eta gorpua nun egoan ikasi neban.

Pakea eta poza izan arren nerekin, eta Jainkoari eskerak emon arren gure arazoak bide ain errezetik joeazelako, kezkek eta korapilloak ez ziran falta nere biotzean. Bosteun kilometroko bidea gendukan etxeraiñoetata, ainbeste egun illik eroran gorputza, nola elduko ote zan etxera...?

Gorputza billutsik zetorren, narru gorritan. Bateren batek eukazanak gaiñetik kendu eutsozan, ezertxo ere utzi gabe. Gorputza neukan nerekin eta, ez zan ori gutxi; baiña, besterik ezertxo ere ez. Begiak eukazan zabal-zabalik eta lurrez zikin-zikin...

Arratsaldeko seirak ziran. Illunabarra, etxeruntz abiatu giñanian. Bideak autsez beteak, gidaria nekatuta ainbeste eguneko lanez; gaueko amaiketan eldu giñan Palentziara. Ostatu baten aurrera. Apaldu ondoren, berriro bidera. Burgos'en kamiño-baztarrean gelditu ere bai, txoferrak lo-kuluxka bat egin egian. Laiño itsua ondoren. Nekez egin genduzan bosteun kilometroak.

Etxera orduko, lagun batzuenan gelditu giñan, ezin ekion itxura aretan gorputza amari erakutsi. Bizarra moztu; arpegin eta batez-ere begiak garbitu, gorputza ez-ezik; soiñeko egokiaz jantzi... Itxuraz aldatu gendun. Tiroa zeukan gerrian eta amildu zanean zauriak egin zitun atzetik bizkarrezurrean eta buruan; baiña, arpegian urratu txiki bat besterik ez. Lo zegoan. Amak ez zizkion zauriak ikusi; galdetu ere ez...

—Zortzi eguneko gorpuzak trato oiek jaso al lezazke...?

—Arek, bai, eta orixe zan arritzekoa. Zergaitik? Eriotz-orduan urdailla zeukan utsik (ez bait zuten bi egunez jatekorik probatu), odol-ustu zan zaurietatik, garaia zan otza, tokia altua, gorputza lur-artean gorderik... Dana dala eta dena den, usairik ez zuan batere, giarrak zeuzkan bigun eta, ekarri ondoren, beste ogeitalau ordu luze iraun zuan etxean. Lurperatzeko une artan bekokian eman nion musuak, otzik utzi zizkidan ezpañak...

* * *

Zer zan soldadutxo baten eriotza gerrate ikaragarri artan? Ezer ez.

Bakoitza bere arlora. Emen ez da ezer pasa, amaren biotzean ezik. Beste aldetik, berriz, oituta geuden gerratean ildako mutil gazteak ikusten baztar guztietan...

Andik sortzi egunera egin ninduten apaiz. Jaia zan. Urrillak 24. Astelenean kuartelera berriro. Ekin nion leengo lanari: eme a ma, eme e me, emei mi, eme o mo, eme u mu... Alfabetatze lana ere "obra miserikordioazko" bat omen da. Segi artan.

Bigaramonean kuarteleko karteroa neregana:

—Aizak i, karta bat iretzat.

—Neretzat?

—I izango aiz Anastasio Arrinda, ala ez.

—Bai, ofizialki ala naiz; baiña nere gurasoen borondatea Anes izena ipintzekoa zan...

—Bo, emen beste Anastasiorik ez zegok; artzak frentetik datorren eskutitz au.

Zein ote zan frentetik nerekin akordatzen zana...? Irigi dot eskutitz ori. Arkatzez, lapitzez, idatzita zetorren. Zeñena izango eta nere anai il-berriarena ez zan ba...? Ona zortzi egun il-aurretik zer esaten zidan karta artan: itzez-itz:

Frentetik: 29-IX-1937.

Anai biotzekoa: ...beste gauza batek jartzen nau triste: ire meza berrira joan eziñak... Ire egun zoragarri orretan presente egon nai nitek, Anes. Ondoren frentera atortzerik ez litzaidake ezertxo ere importa eta bizia ematerik, bear ba'litz, ere ez. Egun gorri asko ikusiak gozak, baiña iltzerik ez jatak inporta; ez jaukat ilteko batere bildurrik. Ez aunke sinistuko zer trankil nabillen arriskurik aundienetan ere. Zenbait egunez, aurrera giñoiazan bezela, bala baten ikutua deseio izaten nijuan, ez emen be ontako sufrimenduak amaitzeko, betiko zorionera iristeko gogo biziagaitik, baizik. Ori gertatuko ba'litz, ez nere penarik izan. Aita-amak konsola egizak eta zeruan zuen alde ekinge dauen anai bat daukala, gogoratu egik. Ez egik ueste bildurrak eraginda mintzo naizenik, ezta gutxiago ere... Ez nau bildurragaitik ari. Zergaitik ari naizen? Ara, gauza auxe sartu jatak buruan: gizonak bere anima salbatzea dauela eginkizunik garrantzitsuena eta nik ez joat nerea galdu nai. Asieran, gerrate onetan, bildurtia nientzoan baiña, geroko itxaropenak egin nau ausarta eta baliente. Miñik larrietasan, nere animaren onerako zirela pentsa eta ez nintzoan geiago eurokin gogoratzen; inguruan balak entzutean, aietako batek zoriona ekar lezakela pentsatuta, Lazkao'ko enparantzan ba'nengo bezin trankil gelditzen ninduan. Geiago idazteko astirik ez jaukat orain bertan lanak jaukazat eta egiteko. Besarkada luze bat. Maite aut, anai.

KOLDO

Emen idatzi dedana ez da ipui bat.

Ez da nere asmakizun bat.

Historia zeatza da.

Xeetasun guztiak gertatuak dira, emen ipintzen diran bezelaxe.

Neri gertatutakoen testigu neu naiz. Nere anaienak, berak idatzitakoak dira il baiño egun batzuek aurrerago. Frenteko karta batek egun asko bear izaten zitun elburura iristeko. Esku askotik pasa bear. Baita zensuratik ere. Orregaitik eskutitza nereganatu zan anaieil da gerro.

Arrinda'tar Anes

SANTU EUSKALDUNAK

Garagar-illean ez da euskal santurik ospatzen.

GARILLAK 4

BALENDIN BERRIOTXOA, MARTIRI DOATSUA.

Elorrio'ko semea. Gaztetan arotza izanik, Logroño'ko seminaria joan zan, abade izateko asmoz. (Orduan ez zan Gasteiz'en seminariarik).

Meza barria emon, eta laster sortu jakon bere biotzean mixiolari izateko gogo bizia. Orretarako dominikarren ordenean izena emotea izango zala egokiena pentsatu eban.

Euskeraz idatzitako eskutiz batetan bere amari diñotso:

“Zure semia prailletxu bat egin da dago, edurra lako abitu zuri bategaz”.

Filipinas'erako bidea itsasoz artu aurretik, azken-agurra egiten deutse euskeraz bere gurasoai:

“Agur, bada, neure guraso maitiak, beron semia Indietara doia, ez urriaren eta zidarraren billa, ezpada zeruaren billa beretzat, eta beste batzuentzat”.

Manilas'tik gaurko Vietnam aldera mixiolari joan zan.

Aldi aretan erasoaldi-pertseku-siño oso gogorra jasaten eben ango kristiñauak, eta Europa'ko mixiolariak estuagoa oraindik. Arrapatzen ebena bereala il egiten eben.

Mixiolariak mendiko zuloetan, eta Kristiñauen etxe bazterretan bizi bear, gaur emen eta biar an,

gauzez lan egiñaz eta egunez esku-tauta.

31urte zituala Balendin, ixilpenik audienean, gotzain sagaratu izan zan.

Ainbeste arerio eta arriskuren artean, noiz edo noiz arerioen eskuetan jausi bear, eta Balendin katez lotuta Tonkin'era eroan eben.

Erriko sarreran gurutze bat egoan lurrean andik igaroten ziranak zapaldu egien. Balendin'ek agintariari:

— Edo gurutzea ortik kandu egi-zu, edo nik ez dot oinkada bat be aurrera emongo.

Nagusiak Balendin'eri:

— Zenbat urte daroazuz gure lurraldean?

— Lau urte.

— Zertarako etorri zara gure lurraldera?

— Kristoren fedea zabaltzeko.

— Ba'dakizu ori galerazota dagoela eriotzaren zigorraz?

— Nik ez deutsot eriotzari bildurrik, Kristogatik iltzen ba'naz.

Agintariak kaiolan sartuta espetexera eroateko agindu eban.

Ba-zan, orduan, espetxean gizon gaizto iltzaille bat. Onek Balendin'en iltzeko bakea eta poza ikusirik, bateoa eskatu eban.

1861 urtea. Domu Santu eguna. Balendin'ek 35 urte.

Lagun talde aundia inguruan. 500 guda-gizon aurretik, gero elefante bi eta ondoren iru mixiolari karioletan preso: Hermosilla eta

Almato aitak, eta gure Balendin gotzaia, martiritzako tokira ototzean eta kantari.

Eriotz-lekuan iru taket dagoz lurrean sartuta... Martiriak lotu, eta une luze batean otoiz egin ondoren, borruak iruren buruak ezpataz moztuta, euren animak zerura zuzenean igon dira.

1906 urtean Pio X'ak Elorrio'ko semea doatsuen maillara jaso eban.

GARILLAK 7

FERMIN, MARTIRI SANTUA.

Santu oneri buruz dakiguna, ez da dana garbia, baiña gitxi-gorabera onelakoa izan zan bere bizitza.

Iruña'n jaiotako. Bere gurasoak, jentillak izanik, Tolosa'ko gotzain, San Saturninok Kristo'ren sinismenera ekarri zituen.

Honesto abade mixiolaria izan zan Fermin'en fedeko irakasle.

San Honorato'k sagaratu eban Fermin Iruña'ko gotzain.

Fermin urte batzutan, zenbatetan ez dakigu, Iruña'ko gotzain izan zan, eta gero Galia'ra (gaurko Frantzia'ra) mixiolari joan zan, an be Jesus'en Barri Ona zabaltzera.

Amiens errian bizi izan zan, eta bertan martiri il eben, Diokleziano Enperadorearen eraso-aldian.

San Fermin da Iruña'ko zaindaria, eta Xabier'ko Frantzisko Deuna Nafarroa osokoa.

(Jarraituko dau)

Goikoetxea'tar Iñaki.

EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA

KATALAUNI

Katalauni, Euskera zaarrean esan oi zan bezela. Oroi Auñamendi'ko abesti zaarra: "Nik baditut bortietan —artzaiak artzainarekin— Kataluni'an mando ta zaldi...".

Gaur "el batua" zaleek "Catalunya" idazten dabe, katalaunitarren idazkera Euskerara ekarriaz.

Nik naiago dot, Katalauni esan, Catalunya'k euskeraz bera izena, ori izan daualako: "Katalauni". Lateraz bezela: "Catalunnia". Itza, Franketarrena da. Paris'en ondoan ba ziren "Agri Catalaunici" batzuek: "Landa Katalauniarrak". An izan zan, V mendean, Atila menderatua; edo, beintzat, geldierazia. Geroxeago, VIII mendea ezkeror, Karloman'en denboran-eta, Katalauni franketarren probintzi zan: "Marka Catalaunica".

* * *

Auteskundeak amaitu-berriak dira Katalauni'n lerro auek idazten asi naizenean. Beranduegi aterako dira, seguruaski, gure aldizkari ontan, baiña, ala're, gauza egokia izango dala iduritzen yat, auteskunde oietatik, euskotarrantzat onuragarri izan daitekezan ondorio edo kontsekuentzi batzuek ateratzea.

Katalauni eta Euzkadi, antzekoak dira, bai noski; ez ordea berdiñak, Katalauni, Euzkadi baiño aundia-goa da. 31.900 kilometro laukoi dauz. Euzkadi osoa, 20.000'ra ez da iristen. Jendez ere gu bi aldiz aiña bada; sei milloi t'erdira iristen bait da.

Izketaren arloan, berriz, Katalauniera, Euskera baiño askoz indartsuago aurkitzen da: 8.500.000 ziran 1970.ean, Balentzi'tik Rosellon'era, Katalauniera itzegiten ebenak, eta 68.732 kilometro laukoi eban izkuntz ori mintzatzen zan lurraldeak.

* * *

Kataluni'ko auteskundeetan Euzkadi'koetan baiño naroago irabazi dabe abertzaleek eta emen baiño azkoz aundiagoa izan da an PSOE españizalearen ondamena.

Gauza bat adierazten dausku pesoetarren zanpapien orrek: KANPOTARRAK, KANPOTIK ETORRIAK, BAIT DIRA, AN ETA EMEN, PSOE españiarrari autarkia ematen dautsoenak.

"Bertako" egite ori, emen baiño Katalauni'n milla aldiz errezagoa dala, edonork dakian gauza da, ango izkuntza ikastea lau milla aldiz errezagoa bait da españiarrentzat Euskera ikastea baiño. An gaiñera, ez bait da, emen aiña indarkeri zipotz erabilli sasiabertzale marxitarren aldetik.

* * *

Katalaunitarra baiño zaillagoa da gure ekintza, Euzkadi osoa abertzale eta, al ba'dogu, euskaldun biurtzeko.

Arreta aundiz ibilli bear dogu. Iñor mindu gabe. Euskera, indarkerien eta geiegikerien erruz, iguingarri egin gabe.

Orrogaitik, gaitz aundia egiten dautso Euskarari, bidezabaleako iragarkietan gure urien erdel-izenak tinta beltzez ezaltzen ari diren iraultzalari sasi-mesias "erri-salbatzalleen" ekinteak. A nolako gaitza egin dio Naparroa'n abertzaletasunari, abertzale ez diran eta beren buruei abertzale esaten dautsoen iraultzalari ezkertiarren zitalkeriak!

Gaiñera, Katalaunera bizkor ba'dago, bereizik;, katalauniarak katalaunieraz mintzatzen diralako da. Emen ere, euskera iltzen ari ba'da, ez da iltzen ari kanpotarrek Euskera ikasten ez dabelako; gu, euskaldunok, Euskeraz mintzatzen ez garalako baizik.

Ontan —aspaldidanik nago etsirik— emakumeena da errua. Gure emakumeek ez dabe Euskeraz itzezin nai. Emakumea, gizartean, izkuntza baten bizitzarako, gizonezkoa baiño garrantzi aundiagokoa da.

Euskera salbatu nai ba'dogu, gure emakumeen biotzetan Euskeraganako maitasuna eta zaletasuna nola sortu pentsatu bearko dogu.

Latiegi'tar Bixente

LUIS BARAIZARRA, OLERKARI

Beti jaku pozgarri euskal literatura barrutian idazle barri baten agerpena, olerkari bada askoz geiago. Eta oraingo au, Luis Baraizarra, karmeldarra, aurten, edo oraingo, Eusko Jaurlaritzaren "Lizardi" saria eskuratu dauana dozu. Beraz, naiz-ta leendik be ezagun-izan, izar dizditsu bat daukagu aurretzean gure literatur ortzian. Dakusgun labur berau nor dan eta zer burutu dauan euskal idazle legez.

GIZONA

Mungia ta Sollube azpiko erritxoak ez dira urri ta exkasak euskal idazlez. Ortze Sollube azpiko Meñaka'n jaioa dogu Luis Baraizarra, 1940'ko epaillaren 17'an. Bere erriko eskolan osotu zituan, beste edozeinek lez, leen-ikasketak; gazte argi zolia etorren, eta andik azkar ebillen praille batek, orren sotil Luis ikusirik, karmeldar Ordenarako deia iragarri eutson samur-samur, eta gaztetxo dei orri erantzunaz ez da egundo damutu izan, beste ainbat damutu izan diran antzera.

Zornotza'n eliz-ikasteak asi, sarbarri urtea Larra'n egin eta Gasteiz eta Begoña'n karrera amaiturik, 1966'ko epaillaren 12'an apaiztu zan Begoña'n. Arrezkero guztian, Larrea'n egin ebazan ille batzuk kenduta, Markiña'n, dago Karmen-elizako arazoetan laguntzen eta Mertzedeko Ikastetxean irakasle.

Bere ikasketak zabalago ta sakonagotu nairik, maisukuntza osotu eban Irun'en, 1971'tik 1972'ra, Eliz-titulua Irun'ga Lasailletarren Ikastetxean eta Estaduarena Balladolid'en aterarik. Oraintsu, 1977-78 - 1981-82, Euskal Filologia osatu izan dau. Denporarekin burrukan ibilli bearra dagokic, umetxoei irakasten sei ordu egunero, Deustu'n Filologia ikasten iru ordu ta erdi eta joan-etorrian beste denpora mordo bat emonez, baiña naimen sendoak eziña be garaitu egin oi dausku. Orrelaxe Aita Luis'ek be.

Orrez gaiñ itzaldiak egiten ditu, etxean eta kanpoan; igaz, esate baterako, emen Larrea'n berak aldarrikatu eban Karmen'go Amaren bederatzurrrena. Artikuluak idazten ditu "Zeruko Argia"-n, "Karmel"-en eta "Oleri"-n. "Karmel"-en ia zerbaki guztietan idatzi dau, azken urteotan "Arbasoen Lorratzean" izenpean ainbat lan eskiñi dauskuz "euskal ohiturez eta lehenaren oihartzuna jaso eta adierazi nahairik". Leenago eziketa gaiak erabili zituen, bizibidez irakasle dalarik, orretan esperientzi pizkat ba-ebala-ta, "Oleri"-n olerki politikak daukaz, eta "Zeruko Argia"-ra ainbat lan bialdu ebazan, geienetan Markiñaldeko albisteak. Bilbo Erri Irratiak be izan dau Aita Luis'en laguntza, Markiñaldeko barri-emoille urte batzuetan izan bait zan.

Noiz asi ete zan etxetik ekien euskera lantzen? "Nire joera eta gogo bizia euskararen alde ahal dudantxo egitea da —diñosku berak—. Teologian ari ginela, geure arteko aldizkari xume bat ateratzen genuen, dena euskaraz, eta hantxe lortu nuen luma erabiltzeko erraztasuna. Lehen saiotxo haien ondoren, "Karmel" aldizkarian idazten nuen zerbaki guztietan. Azken urte hauetan ere horretan jarraitzen dut".

Itzulpenak egin dauskuz, "Kili-kili" komikako arloan. Baita itzuli eban eta argitaratu, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babesean, "Salbabide eta Laguntza", erderaz "Salvamento y Socorrismo" deritxona. Testu bezela, O.H.O.-ean erabilteko Euskal-Erriaren Kondairarik ez egoala ikusiaz, berak osotu eban, naiz-ta izerditan, lan polita eta "Gero"-k argitaratu eutson iburu bitan, "kimu" saülean. Laburpen bat da berau, baiña orduan egoan utsunea betetera etorren.

Tesiña egitekotan diardu orain: "Bartolome Madariaga'ren euskera ta orain Markiñaldean egiten danaren konparaketa" izango da gai. Ez da, ba, geldi egoteko gure mañakarra. Euskal Filologian Deustu'ko Unibertsidadetik lizentziadun danez gero, euskal literaturari lotuago ta kezkatuago bizi jaku.

OLERKARI

Olerkari dogu Aita Luis, odolez, izaeraz, etorritz. Senditik datorkio itxura danez doe ori, beronen arreba bat be "Karmel"-en ainbat bertso-lan emona dogu-ta.

Urteak dirala asi zan umeentzat poematxoak biribiltzen, Gabonetan eta ospakizun berezietan jende aurrean kantatzeko. Benetako poesiak idazten alan be Filologia ikasten ebillela asi jakun. Berak onela: "Hor literatura-gaiak ere aztertzen direnez gero, ia ustegabeen hasi nintzen poesigintzan eta ipuigintzan, baina poesigintzan batez ere. Mikel Zarate zenak bultzatu ninduen. Hura, literatura-antologiaren bat moldatu nahirik edo zebilen eta harako zerbait eskatu niri eta esku-hutsik agertu beharraren zatzadak eta lotsak eragin ninduten menturatzera".

Ordutik asi zan egiaz Musak maitatzen, palagu ta auzurikeri goxoak egiñaz asi be, 1980'an "Lauaxeta" sarian esku artzera bizkortu zan, Laukiz'en, eta bigarren geratu jakun; ondoren, Iparragirre'ren mende-urrenean, lenengo saria jaso eban; 1982'an, Ondarru'ko Lore Jokuetan, bigarren saria, eta igazko Markiña'ko Lore Jokuetan irabazle; urte onetan bialdu ebazan lanak toki geiagotara be, baiña ez eban saririk eskuratu. Berak onan autortzen dausku: "Ihazko urtea ez zen ona izan: Euskaltzaindiak bi urtetarik behin antolatu ohi duen "Arrase-Beitia" poesi-sariketara eta "Donostia Hiria" ipuin-sariketara aurkeztu arren, ez nuen ezer eskuratu".

Baiña aurten "Bakardadeko Bertso Ezpalak" deritxan lanaren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren "Lizardi" saria irabazi dausku. Zorionak, olerkari ta anai gisa!

Amairu poemak osotzen dabe lana. Onela: 1) "Lokatetik birsortuko da"; 2) "Monastegi zaharra"; 3) "Gelan"; 4) "Gabon gaueko sentipenak"; "Ene oporrak mendian"; 6) "Biziaren taupadak"; 7) "Bizia itzaliz"; 8) "Poesia bizia"; 9) "Amildegira hurbiltzen"; 10) "Harriaren mezua"; 11) "Lurraren mezua"; 12) "Hego haizearen hegoetan"; 13) "Laratz ondoko koplak". Gai askotakoak dituzu; sentipenak, biotz-taupadak, jaiotza, bizia, eriotza, lurraren eta arriaren mezuak, eta abar abesten ditu ederki oso.

Egitura edo azaleko itxura aldetik, erriari begira egiñak dira, ez gooregi ez beeregi, erdiko senez baiño. Neurriari eta errimari, eta barneko igiera edo ritmuari leku zabala emon dautse Aita Baraizarra'k; danak dagoz ondo neurtuak eta azken-askidetuak. Eta modu oneri batzuk klasikua deritxe. Nik itandu neutsonean, "zergaitik egin dozu olan?", berak erantzun eustan: "Olerkiak olerki izateko neurria, igiera ta amai errimatua bear ditulako". Pentsamentuak eta sentimenduak, ederto; baiña iru doe areik jazten ei dabez dotore giar, oneik. Ba-dakizue, beraz, olerkari askazaleok, erreze-zaleok.

Lizardi'ren jarraille izanik be, erri literaturaren bideetatik joan nai dau meñakar olerkari fiñak. Saria eskuratu dautson txorta onetatik geienak bide orretatik, kantari doala, egiñak

doguz; batzuk bertsoarien antzera, "Laratz ondoko koplá" ize-
nekoa, adibidez, Erri-poesia, izan be, ez dogu iñoiz albora itxi
bear; guk be, ez dakit zergaitik erdi-saiets lagata daukagun
arren, munduko literatura zabaleko olerkaririk onenak, azke-
nean erri-literaturara jo izan dabe euren oldozkun eta biotz-
zirrarak adierazteko. Erri bakotzak, gaiñera, modu berezia dau

bere arima azaltzeko. Eta modu orretatik iges egiñaz laiñoetatik
dabilenak utsal-bidez jokatzén dauala esan bearko.

Nik esanakaitik or zagoz zu, irakurle, zelako olerkari dogun
jakin-naian. Nolakoa dan argi dirauskuen lau-aspaldiok emen
dituzu; irakur eta zeuk esan. "Gelan" deritxonetik artuak dira.

"Gela barnean nago ametsez
neure gelatxo txiki txokoan,
horma sendodun kabi batxian
gaztelu honen amets-kokoan
buru-laneko saio hertsian.

Leiho meharrak kanpoko mugan
laukiek mutu horman zintzilik,
ate itxia bake-jagole
ene lagunak beti ixilik,
irudimena musika-jole.

Toki barnekoi, kabitxo maite,

eguneroko testigu kutun,
bakar-laneko bazter eratsu
batzutan alai bestetan itun,
beti niretzat lagun txeratsu.

Bakardadeko lantegi goxo,
hortxe naukazu poza xurgatzen;
hor egiten dut lana, hor amets;
malkoak ere hortxe txukatzen...
Zure berotan badut nik babes,
gelatxo txiki, horma zaharduna,
zure itzalpean aurrera doa
eguneroko ene jarduna.

Onakoetan sarri agertu oi jatzuz izparkeri maltzurak, eta Baraiza-
rra'ri be, zera itandu eutsoen saria jaso ebanean, ea bere burua euskal
olerkeri ospetsuetariko gailurrean ikusten eban. Eta erantzuna: bera
karmeldar dala, apaltasunaz jantzia, egi-bidetik dabiliena. Bera da
dana, sari batgaitik arrotzen ez dana. Berak aurrera jarraituko dau eus-

kerá lantzen, euskeraz idazten, euskeraz erakusten... Gure izkuntza,
izan be, guztion lan-premiñan aurkitzen baita.

AITA ONAINDIA

LOKATZETIK BIRSORTUKO DA (Aurten "Lizardi" saria Iortu eban olerkia dozu au)

Euria, tximista, trumioia,
betoskoz jantzirik da goia;
zeru-zola burrunbadaka,
tximista-geziz grakadaka.
Bestetako oihál urdina
herio-mehatxuz gordina,
milaka zatitan urratuz
goiak behean hots amorratuz.

Oporraldiko jai-giroan
bero ohi den aro eroan
festa orduko uda-udan
hau tristura! Zer gertatu dan!
ABUZTUAK HOGETASEI
fetxa honi ez jakin nola dei!
Lan eskergaitzaren herentzi
uholde ankerrak irentsi.

Dena ezinaren ezina
ondamendiaren samina
urek dena trumilka bilduz
lur-zintzurretatik amilduz
guztia hautsiz atzaparka
hor zehar utziz lokatz-marka...
horra tristurazko trixkantza!
Badu honek gerraren antza.

Baina urek ez dute hesirik
ez eta itxitura-hertsirik,
indar hezigaitzez oldartsu
abiada zoroan itsu;

bebarruko zokondoetan
lur-orpo sakon ondoetan
baren indarra erakutsiz
bide ertzean negarra utziz.

Noragabe uren ahoan
lokatzeko zurrunbilan
bizirik jaso dute ama.
Hura zan, baina, hura drama!
hiru seme eraman ditu,
urak brastadaka txikitu;
berez bizigarri den ura
eraille zakar bihurtu da.

Atzo bare ziren zeharo;
orain, berriz, zoramen aro.
Urak kalera irten dira...
zorigaitzezeko kalegira!
errotik dena erauzirik
bere erraietan egosirik
zalaparta borrokarian
sartu da basa-ihauterian.

Aurrera basa-ihauterian
bazterrak utziz miserian.
Ama bat dago han begira
goibel, zulo beltzen erdira
zulo hartan ehortzi baita
berak gehien zuena maita.
"Ez dut hitzik; hortxe da dena"
—lurra seinalatuz—. Hau pena!!

Lurra seinalatuz! Hau pena!!
hamaika bihotzen auhena.
Ondamendi biharamona;
haurrak dardar, triste amona,
ondakin-zakar multzo itsusi
ezin da besterik ikusi;
horra hor trixkantzaren lorratz,
etorkizuneko ordu garratz!!

Hau etorkizunaren garratz
eta ikuskisunaren narratz!
Euskal bihotza da mingostu
umorezko sena izoztu.
Hoberena lurak irentsi,
baina zuk, Euskadi, ez etxi!
gaurko lana biharko lore
herri batuaren ohore.

Herri batuaren ohore
lanari darion birlore,
lokatzetatik erneko da
Euskal Herri, azpirik gora
itxaropenaren hegotan
izerdi-jario berotan;
oraingo ondamendi larria
geroko poztasun-irria.

LUIS BARAIZARRA
(1984)

ATSEDENA IZAN BEGI

Eriotzearen barria beti izaten jaku samiña, baiña ba-dira samintasun au geitzen edo gitxitzen daben zertzeladak. Esaterako, gaztearen edo lankide izan dogunaren edo senidearen eriotzea izateak samintasuna geitu egiten dau eta sasoi onean eta eriotza baketsua bide dala joan jakunaren eriotzeak gugan be bakea ta itxaropena sortzen dauz.

Bigarren era onetakoa gutzat Elbira Zipitria'ren eriotzea: Sasoi onean eta baketsua izan zan eriotzea.

BERMEO'KO MAÑU'RA

Olako albiste itxaropentsuagaz batera, beste jakingarri batek emon euskun zer-pentsau: Elbira'ren gorputza Bermeo'ko Mañu'ra ekarriko eben illobiratzeko.

Baiña zergaitik Mañu'ra? Zergaitik itzi eutsen bere senideai agindu au?

Ba-genkien Elbira andereñoa Mañu'ko abade izan zan Garitaonandia'tar Gotzon idazlearen adiskide aundia izan zana. Orregaitik nai izan eta azken gurari lez itzi ete eban Mañu'ra illobiratzeko bere gorputza ekarteko agindu ori? Orrelan izan ba'litz, okerulertze bat izan zeitekean. Gotzon abade jator eta euskaldun zintzoaren gorputz illa ez eben Mañu'n illobiratu, bere jaioterria zan Bizkai'ko Urduliz'en baiño.

Orregaitik, bere senideak eldu ziranean, lenengo itauna auxa egin geuntsoen: Nondik sortu ete jakon gurari ori andereño jator, jakitun eta ospetsu oneri.

Erantzun argia ta egokia: Ez. Beste bat zan Zipitria'ren zioa Sollube-gaiñean illobiratzea eskatzeko.

EUSKALERRIKO AMAMA

Bizkaia'n zear IRA'k egin ebazan ibillialdi askoren artean bat, Bizkai'ko amama zarra ikusteko egin ekan. Gotzon bizi zan etxe beratan bizi zan. Euskalerriko Amama esaten eutsoen Mendizabal eta Imatz'tar Eskola: 106 urteko andra euskaldun eta jatorra. Eta 106 urteko andra euskaldun onegaz izan eban alkar-izketa luze ta gozoak gauza asko gogoratu eutsozan Elbira andereñoari gure kondaira jakingarria-

ren zati on bat, gizaldi oso bat bururatu eutsen. Orregaitik artu eban erabagi ori.

TALDE AUNDIA

1982'ko abenduaren 27'an, eguerdi-inguruan, Sollube-gaiñeko Mañu auzoan giza-talde aundia; Mañu'ko baserritarrak. Bermeo'ko Udal-Batzaren ordezkoiak Jakintza-Batzordeko udalkide bertaratuak, Bermeo'ko beste adiskide ta euskal-zale asko, eleizearen aurreko zelaian egozan batuta eta eurakaz batera Bizkai guztitik etorritako adikideak eta langilleak, batez be Bilbo'koak.

Eta Gipuzkoa'tik berebilletan etorritako senide, ikasle ta adiskide edo lankide asko.

Mañu'ko eleizatxua bete egin zan.

Altaran, Mañu'ko txanburu dan Obieta'tar Jose Antonio Frantzisko'tarra eta bere ondoan Gipuzkoa'ko guztien izenean, Gaztañaga'tar Jesus, bere adiskide ta lankide izandako abadea. Aita Obieta'k egin eban itzaldi labur eta gozoa euskalzaletasunerako deia egiñez. Eta azkenean, labur-labur Gaztañaga abadearen berbaldi egokia.

Aundikeri-bako illetea, apala ta otoitz-girokoa axe anaitasun usaiñez inguratua.

ILLERRIRA

Illetearen eleizako ekiñaldia amaitu zanean, eleizpetik igaro eta illerrirantza abiatu giñan. Eleizpean bertan, Gotzon'en omenezko idazkia daukan oroitarri gogoangarria irakurri genduan.

Gero maillaka neurki batzuk gora igon ondoren, illerri apalaren atea aurrez eta ate-buruan idazki gogoangarri bat.

Eta barruan euskal-illari asko ta politikak, benetako illerri euskalduna agertu jakun. Axe zan IRA'k bereztat aukeratu eban azkeneko egoitza. Antxe egoan orain amabost urte gure artetik joan zan Bizkai'ko Amamaren illobia. Eta antxe gertatu eben Elbira'ren zatitza atsedean lekua be. Oraindiño gaiñeko illarria ta idazkia egin barik dagoz. Gallastegi'tar Lander Etxe-

giña dago arduratuta gomutaki au gertatzeko eta egun gixi barru ipiñiko dauala uste dogu, eta IRA'k be Amamaren antzeko gomutakia izango dau bere gorputza illobiratuta dagoan toki aukeratu aretan.

Azken-otoitza eta azken-agurra egiñaz amaitu zan illetea.

BAKEA TA LANA

Ostean, adiskideak agurtzea eta alkar-izketa samurrak, dana bake-giro pozgarrian.

Geienen agotik olako esaldiak entzuten genduzan: IRA'k jarraibidea emon dausku bakean eta alkartuta lan egiteko, batez be Euskerearen eta Euskalerrriaren aldeko ekiñaldietan.

Ez zan Elbira gogorkerizko jokabideen lagun, ez zan euskaldunen arteko naste ta setakerien gogoko. "Noiz amaituko ete dira gure arteko zatiketak eta burrukak?" esaten eban.

Eta lan orretan gogotsu ekiteko berbea emon ebe-nak be izan ziran an egun gogoangarri aretan, batez be euskal-jakintzaren aldeko lan baketsua egiteko berbea emon ebenak.

Eta ekiñaldi itxaropentsu au amaitu ondoren, sarritan entzuten dogun "Zoaze Jaunaren bakean" esaldia gogoan dogula, bakoitxa bere lanera.

Atsedena izan begi bakean, gure lankide ta adiski-de Elbira Zipitria andereiñoak.

OLAZAR'TAR MARTIN'ek.

ATHLETIC...

ZURE TA EUSKALERRIAREN OMENEZ

*Aupa athletic gazte taldea,
euskalerrriko lorea,
zuen barruan daroazue
pelotoirako griñea;
euskal aristi eder batean
artu zenduen fedea,
zelai orleian agertuteko
zuri - gorri kolorea.*

*Leoi izena emon dautsue
odolez darozuena,
euskal mendi ta landarik landa
negurtuteko almena;
giza izatez apartekoa
da euskaldunen kemena,
baloia baiño aundiagoa
biotza dau oberena.*

*Gizontasuna berezkoa dau
euzkotar giza semeak,
zuzentasuna jaiotzatik dau
euskaldunaren etxeak;
langille legez erri autua
zarala diño jendeak.*

*kirolari lez gure mutillak
izango dira trebeak.*

*Aurrera mutil adoretuak,
ur daukazue garaitza,
beti, bezela gizontasunez
jo zelaian danbar otsa;
geuria da-ta, geuria da-ta,
aurten kirol nagusitza,
esna dedilla txalo otsean
begira dagon jendetza.*

*Aliron gora, aliron bera...!
poztu dadilla jendia,
urte guztian ardura biziz
egin dozue bidia;
zorioneko jardunaldiak
emon dau gaurko zoria,
garbi, indartsu ta jakituriz
lorturik garaitz nausia.*

PAULIN

ASKATASUNA (AUTONOMIA)

Gure jokabidea leen, orain eta gero, gure nortasuna, enda, ezin dauzku iñok kendu.

Gauza sinistu eziña da erbeste-koarentzat ezaupide au.

Orixe ez dogu galdu bear. Itxura ori Euskalerrria dan bitartean, iraun bearrekoea da.

Gure izakera, arroa da eta abere gaiztoaren antzerakoea.

Iñon azpian ez dogu egon gura. Onegaitik aituten dira iru gauza oneik:

Gure etorkeria edo jatorkizuna; izkuntzaren iraupena; eta sinistu ezin leikean arpegi emotea gu zapaldu gaituanari.

Orregaitik irauten dabe, iru garrantzizko gauza oneik.

Inguruetako izkuntzak ez daukie gurearen antzik.

Ainbeste urtean orrenbeste esbestetar, bere ingurutik igarota nastau barik geratutea, askok eta askok ezin sinistu dabena da.

Iñolaz be, gatxa zan toki au zapaldutea: menditsua zalako, edo emengo bizilagunak okerrak ziralako, ez dakigu zergaitik, baiña igaro egin ziran, emen gelditu barik.

Euskalerrri ondolik igaro ziran ainbeste urteetan, iparaldetik: Sueboak, Bandaloak, Bisogodoak, Romanoak; eta egoaldetik Arabatarrak.

Scipionek bere arrotasunean,

lur oneik zapaldu, gura izan eban zan.

Orretarako asmoan bakarrik, eldu zan Tarragonara, baiña azkenean bere asmoa bete barik, biurtu bear izan zan.

Baiña oraintsuago, nire belarriak itz oneik entzun dabez.

Gure guda-denboran, burusagi askori entzuten neutsen:

Oso gatxa eta zailla izango zala, egazkin barik Bizkaia menperatutea. Jente au gogorra eta arrua da.

Euskalerrriak aintxinetxotik, erri-ordezko gobernuak euki dauz.

Erriak ipinitako jenteak aginduten eben.

Onelan, diñoie bai erri-biltzarrak, bai Laburdikoak, bai Soule eta bai emengo Bizkaiko Gernikako batzarrak.

Gure errietako agintariak, eta bai etxeetakoak be, beti izan dira aminiztrazio onekoak. Beste modu baten esanda: Esku garbikoak.

Danonak dirala ta zintzo eroan bear dirala.

Emen beti izan gara aurrera-tzailleak. Gure Kutxak diru asko euki dabe erriak aurreratuta, ainbeste ta ainbeste gauza egiteko.

1925 n'eko urtean, Aretxabale-ta errian, alkate edo erriko agintaria Julian Zaloña izan zan. Ba gizon au erriko beartasunetan Donostira joaten zanean, erriari

irazirik ez egitearren arrautzeopi-lla eroaten eban besapean. Orain nok egingo leuke olakorik?

Orain be badaukaguz adibe onak euskalerrrian; Emen daukagu iru KLUB, zorrik barrik. Zergaitik. Aministiazio ona, zintzoa daroalako. Espaneko KLUB geienak zorrez beterik dagoz, eta emengoak zergaitik ez? Zintzotazunagaitik?

Osasuna, Reala eta Atletik, ordagoz aurrenengo dabilzananak, onenak, txapeldunak, iñundik jokolariak ekarri barik, emengo mutillakaz jokatuta ainbeste txapelketa irabazten dabenenak.

Zelako adibide ona emoten dautsegun beste guztiei, eta euren arrokeria zapaldu.

Eukiko ez dabe ba ezin ikusia, gorrotoa? Eurak gura dabe diruaren puruz jokolari onenak ekarri eta alan eta be ezin makurtu emengo mutil jatorrak.

Espeñetar KLUB'ek, oneik baiño sarrera aundiagoak daukiez domekan-domekan, sozio asko be gehiago, eta zergaitik zorrak?

Argi ta garbi dago: Euren aministrazioa, oso txatxarra dalako.

Iñon dirureakin ondo bizi gura dabelako, edo iñon kontura ondo bizi.

Gero derrior egon bear oso txarto diru-egoerak, jokolariai ezin ordainduz.

ZORIONTASUNAK

Umore oneko kanonigo batek, zoriontasunen jakituri aundia ekarri dauku gaur-egungo bizitzaren lagungarri.

—Zorionekoak euron lepotik barre egiten dautzoenak, euron barrea amaibakoa izango da-ta.

—Zorionekoak mendia sator-lurpilletik bereizten dabenak, buruauste asko aurreztuko dabe-ta.

—Zorionekoak isiltzen eta entzuten dakienak, gauza barri asko ikasiko dabe-ta.

—Zorionekoak euren burua serio ez artzeko beste zurrak diranak, euron inguruan aintzakotzat artuak izango dira-ta.

—Zorionekoak zuok gauza txikiak seriotasunez artzen ba'dozuez eta gauza serioak bakez, bizitzan urrin joango zarie-ta.

—Zorionekoa zu, irribarre ona ikusten eta kiñu txarra aaztuten dozun ori, zure bidea eguzkiz betea izango dozu-ta.

—Zorionekoak, egin baiño len uste izan eta uste izan baiño len otoitz egiten dabenak: lelokeri asko aurreztuko dabe-ta.

—Zorionekoak batez be zuok, beti, bizitzako gauza guztietan Jaungoikoa ezagutzen dozenok, egiazko argia aurkitu dozue benetako jakituria.

(Frantzesetik euskeraldua)

Maitena Belaustegigoitia

BAKEA

*Odol usain itzalez
aizea garratz dator
ego ta iparraldez
beren ibilli minkor
deungakeri zatarrez.*

*Egungo gizartean
ez al da maitasunik
ez al da ontasunik
mundu, lagun artean
iñolako zentzunik?*

*Ez al da ba gizonik
alkar-anaitasunik
ez al da bizi pozik
bizitzasun aztarnik
ondamena besterik?*

*Mundu gudatu baltzez
geituz gure nekea
itun dator aizea
munduko negar otsez
nun eteka bakea.*

*Bakea nun zagoz
ezpazaitut ikusten?
Deika dabiltz nabarmen
dei ta dei an ta emen,
eskuratzeko gogoz.*

*O, bai, zu ene anai
otoi! Eskari ori
ta, askorena dan nai
ori, lorara bedi
maitetasunez, alai.*

MUNIATEGI-TAR SABIN

LAPURRA

José de J. Estevez'ena

*Baserritar neskato ederra an egoan
leio idigiaren alboko ogean lo.
Gau atarian argi-illunak kilimolo,
zisne bat zirudin urgeldiko abaroan.*

*Ni, KONTUZ! garraxi egiteko ba nengoan,
odol ernai, neskatxaren lilluren atxilo
nintzanean, an urbil ta totolo,
lapurra gela barrurantz ikusterakoan.*

*Amorruz bete ta ixil, leiotik sartu zan
ta gero baserritar neskutsaren ogera
barneratu, geldi-geldi, leunkiro ta otzan.*

*Illargi izpia zan-urrez beteko dizdira
aren billoz basatia musukatu eban
ta maitez dardar lo joakon bularretara!*

EUSKERAZ:

Bidaguren

ESKU-IDAZKIAK

XXVII GORAPEN-ABESTIA

²⁵ Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,
zure indarraren aundi-izateagatik
eta zure aberastasunaren eskintza betiko ta barriz-
tuagatik.

Zure errukia bai aundia,

²⁴ pekatutatik urruntzen dauana parkatzen dauan
errukia!

Epaitu egiten dozu dongen gaiztakeria,
maite egiten dozuz biotz zabalez emoten dabenak.

²⁵ Gorroto dautsazu zuzenbagekeriari.

Ni, zure morroi au,

ezaguera-espirtuaz lagundu nozu

²⁶ gaiztakeria iguintzeko.

Biotz zabalez izango zaitut maite,
neure biotz guztiaz,

²⁷ zeure eskutik soillik datozan
errukiak gogoraturik.

XXVIII GORAPEN-ABESTIA

XV sorta

⁹ Jauna, egun guztietan
maitatuko zaitut, eskintza osoz,
biotz-biotzez, arima guztiaz.

Garbitu egin dot [nire biotza]

¹¹ Zuk gaiztetsi dozun guztitik [ni urruntzeko].

Nire burua "aundia?" lotzea [erabagi dot].

¹² onezkero zure erabagiak iñoiz be bertan-beera ez
izteko.

Zure argitzeaz, ulertu dot, bai,

¹³ gizonak, berenez, ezin garbitu daikezala bere zido-
rrak,

ezta bere bideak sendotu be.

Ba-dakit espirtu bakotxaren zoria

zeure eskuan dagoana

eta aren [oinkada] bakotxa

¹⁴ a sortu izan baiño leenago erabagi dozuna.

Zelan aldatu aal leike iñok zure barbarik?

¹⁵ Zeuk sortu zenduan (gizon) zuzena.

Sabelean ezkerro sendotu zenduan,

zeure naiaren erara ezarri zenduan itunpenaren
inguruan,

zeure zidorretik joan zeiten.

Aretzaz erruki izatea izan zenduan nai;

¹⁶ zeure erruki ugarietan [erabagi zenduan]

ari salbamen betikoa emotea,

estutasun guztitik atara zenduan!

Bake osoa arentzat.

¹⁷ Aren gorputza aintzarako agerrerazo zenduan.

Dongak ama-sabelean ezkerro izentatu zenduzan
zurealdeko triskantzarako.

¹⁸ Bide txarretik doazalako;

zure itunpena igundu egiten dabe.

Gorroto izan eutsoen zure Legeari.

Ez eutsoen atsegiñik artu Zuk agindu izan zendua-
nari.

¹⁹ Zuk iguintzen dozuna aukeratu eben, ain zuzen
ba!

Orain, euren lepoan eroan bear dabe

zure epai zuzenen sorta

²⁰ izaki guztien aurrean.

Gizaldi betikoentzako ezaugarria,

(gizaldi) guztia zeure aintza

²¹ ta zure indar aundia ezagutu dagiezan.

Zer da aragia, zure misterioak ezagutzea nai
dagian?

Autsa izanik, zelan sendotu bere oinkadak?

²² Espiritua eratu zenduan Orrek,

neure ekiña be [zaintzen dozu];

Zeugandik dator edozein bizidunen bidea.

²³ Nik ba-dakit egia bardintzeko ondasunik ez dagoa-
na.

Nik ba-dakit guztien artetik aukeratu dozuzana.

²⁴ Areik betiko otseinduko zaitue.

Zuk ez dozuz ontzat artzen doai gaiztoak,

ezta gaiztoen egintzetatik be ez dozu saririk artzen,

²⁵ Zu egiazko Jaungoikoa zara-ta.

Ondatu egiten dozu edozein zuzenbagekeri.

[Gaiztakeria] ez da geiago bizi izango zure aurrean.

²⁶ Ba-dakit zindokuntza guztia Zeugandik datorre-
na.

³¹ Zeuk biurrerazoko dozuz gizonak

Adan'en aintzara.

AITA MANUEL LARRAMENDI

Aita Larramendi'k egiñiko lana "Conferencias curiosas, políticas, legales y morales sobre los Fueros de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa" delakoaren agerkerak eztabaidea sortu deusku. Josulagun Andoaindarra, oraingo egokera politika berezietan, ipiñitea asmatzen dabe batzuk.

Lana, "Academia de la Historia"ko liburutegian, eskuz idatzita, egillearen ezaugarri barik, egoan. Bere liburu "La Provincia de Guipúzcoa"-rentzat, gaiak billatuten ari zala, an aurkitu eban Francisco Elias de Tejada, gure adizkide kutunak. Liburuan bertan aurkitutako albistea emon euskun, eta aldi berean, an esandako laburtuta aitatu eban.

Aita Larramendi'ren II'garren eunarteko jaietan, Francisco Elias de Tejada'k berbaldi eder-ederra emon euskun Andoain'go Iparragirre zinetokian, Berbaldiaren emaietan. On Ignacio Telletxea Idigoras'gaz berbetea izan eban, aurkitutako liburua argitaretzeko asmoegaz.

Telletxea lanean asi zan. Liburuaren aipatu dogun agerkerak, lan onen ondorengoa da. Elias de Tejada'k ezin izan eban aurkitzearen amai zorionsua ikusi, 1978'ko zezeillan il zan-eta.

Larramendi, gaur aituten dogun lez, nazioizalea ete zan? Erdi-erditik, ezetz.

Nazioizaletasuna Frantzia'ko Iraultza'tik sortu jakun. Iraultzaleak, Louis XVI'aren burua ebagi ta aldarean Adimen Andregoikoa ipiñita, burueri itaundu eutsoen "nondik datorkien agintariak agintea?". "Nazioagandik" izan zan erantzuna, naiz ta gaur arte jakin ez nazioak beteko dau. Nazioarentzako gurpena, izango da erria bizkortuko dauan erlijio jaungoiko-bakoa.

Augaitik, Aita Larramendi ezin zan urte batzuk geroago sortuko zan siniste baten jarraitze.

* * *

Ez eta aurrelaria be. Esan dogun lez, gizartetik jaunkoa kentzetik sartu da nazioizaletasuna. Teoloji te filosofi aldetik, eskolastikan tajutua zan Aita Larramendi.

Eskolastikoak munduari Jaungoikoaren lanlez begirantzen dautsoé Augaitik, Jaungoikoak ipiñitako antola miragarriak agintzen dau munduan. Bere "Conferencias"-i "morales"-tzat iritzia emon datsoenean, argiro agertzen yaku bere pentsakera. Larramendi'k ez leuke onartuko politikea ta zuzen-legeak bananduta dagozala, gaurko gizon geienak pentsatzen dogun lez.

* * *

Bere Conferencias"-an, aita Larramendi'k, Frantzi'tik Borbondarrak ekarritako al-osokeriari emoten dautso arpegia. Berrikuntza Protestanteak sartu eban

Europa'ko erreñuetan al-osokeria. Inland'eko Eleizaren teologi-jakintsuak erregeen jaunkozko eskubidea aldarrikatu eban.

Frantzi'an, monarkia katolikoak jarraitu-arren ugonote-kalbindarrak garrantzi aundia artu eban. Eleiz ezberdin bigaz aurkitzean, Jean Bodin legejakintsuak, eleiz bien gañean, soberana egon bear litzakela, bien artean epaillea izateko, ustaria zeartu eban. Onelan jayo zan Frantzi'an al-osokeria. Louis XIV'garrenagaz elduko zan gellurrerik goienetaraño.

* * *

España'n orde, erdi-aroko usteria eutsi zan. Salamankako maisuak, eskubide xoilla jaunkozkoa zala iñoen. Erregeak berezko aginte ta erantzun osoagaz agindu-arren, eskubide-pean jarri bear ziran ta emoniko itz ta egindeko ziña begiratu.

Larramendiri aurkako berbeta-lagun bategaz dagoala iduritzen yako. Bati asmoen arloan, onela diñotso aurkalaiak "Gure idazle-jakintsu frantzesak, agintea Jaungoikoagandik bitarteko barik erregei detorkiela aldarrikatu dabe. Augaitik ez dautsoe zor erriari ta ezin leiteke epaimaira —Jaungoikoarena izan ezik— eroan. Bidezko errege diranak, gaiztoak be bai, amaika bidegabekeri egiteko almene ba-dauke, ta menpekoak ez konturik artzeko ezta ordainketa eskatzeko be, ez daukee eskubiderik".

Larramendi'ren asmatutako erantzuna biribilla da: "Orren sorburu izugarriak zuen idazle-jakintsu-k aldarrikatu ba'dabez ta orreikaz ondo aurkitzen ba'dira, emen España'n, danak gorroto dautsegu, bai menpekoak baita erregeak be".

Au zan Aita Larramendi, au. Gizarte —politika-sorburu españatar jatorrena, ta aren bitartea, Gipuzkoa'ko libertade ta eskubidean aldezlari kementsua.

Ibáñez Karlos

Sestaoko laba garaietako ijienerua

Iztegitxua

Erabiliko itz bereziak:

Adimen Andregoikoa: la Diosa Razón.

Al-osokeria: absolutismo.

Nazioizeletasuna: nazionalismo. Abertzaletasuna bestelakoa da: patriotismo.

Jainko-kentzea: laicismo.

Soberana: ez dot aurkitu berba obagorik. Bakalduna nere ustez "monarca" da. Vitoria'k diñonez "soberano"-ri dagokio. Baña Bodin'en "souverain" bestelako berria da. Vitoria'gan, "soberano"ren gañean Jaunkozko legca dago. Bodin'enaren gañean orde, ez dago ezer be. Ortik al-osokeria.

Jaunkozko eskubidea: derecho divino.

Ustari: creencia.

EUZKALDUNAK

Euzkaldunak garala-ta, arro erakusten dogu geure burua. Beneran, kopeta altzata eroateko esku-bide osoa dogu. Orrek ez dau esan nai gu, euzkaldunok, beste errieta-ko semeak baiño obeagoak, zintzoagoak edo kultura mallan goren-goenak izan garala, ez.

Baiña gure jokabidea ta ekin-tzak geureak dira, geure sustraie-tan kokatuak. Beste erriei zor yakoena ukatu barik, Euzkal Erriak ba-dauka zertan arrotu.

Kondaira luzea

Erri asko erri lez agertu ta desagertu egin dira kondairan zear. Gureak antxiñatik oraindiño irauten darrai. Gero ta geiago dakigu gure asaben bizimolde, tresneria ta oiturak. Zoritxarrez, jakin nai dogun guztia asetzeko urrin dago-la esan bearko da.

Gure Erria zaarra dala badakigu. Millaka urteen zear gure aurrekoak gaurko lur au landu eben. Etzan izango bizimodu eroso ta mendi tarte oneitan. Baiña, beste aldetik, naiko pizti ta abere zituen, bai janaria ta bai jantzia lortzeko. Beti eiztari trebea lez ezagutua izan da euzkalduna. Erromarren egunetan emengo balazteriak aintzakotzat artuak izan ziran.

Alan eta guzti be, euzkalduna ez da agertu guda-zalea. Etxean ego-tea edo bere lurak lantzea yakon atsegin. Erdeldunak euren arazoei begiratu egiela, bakea alkarregaz ondo zainduz. Orrela gizaldiak joan gizaldiak etorri, euzkaldunak bere lurrari eutsi dautso, besteena

ostuteko asmo zitalik gogoan erabil-li barik.

Biotz-zabaltasuna

Bere lurra maitatzeak ez dau egin euzkalduna berekoa. Inguruko ta urringo munduari laguntzea ez yako aztu.

Arlo guztietan goiko mallatan agertu yakuz Euzkal Erriko semeak.

Eleizan eta Jaunaren serbitzuan, besteak beste, or daukaguz erraldoi bi: Iñigo ta Xabier. Ez dira izan leenengoak eta ez dira izango azkenengoak (gogora daiguzan Balendin Berriotxo ta Domingo Iturrate-Zubero, adibidez). Baiña Iñigo ta Xabier'ek, bearbada, erakutsi eutsoen munduari euzkaldunak barruan daroan anditasuna. Lurbira osoak ezagunak ditu jesuita biak, ez bakarrik euren bizitza goren-gorenkoa dalako, baita eurak sortu ebezan erakundeak Eleizarako ta gizarterako gogoan-garriak diralako.

Baiña zabaldu daiguzan atea. Euzkaldun gorengoenak ez doguz aurkitzen bakarrik eleiz-gizonen artean. Erri txikia gara, bai, baiña arlo askotan txapela ondo jarrita ibiltzen dakiguna. Unamuno batek eta Baroja batek, nai ta alde batzuetatik geure erriaren kezketatik eta jokatu, beste aldetik ez eben euzko-lurraren kutsurik galdu.

Jakintza-gaietan be ez gara makalak izan euzkaldunak. Etziran izan edozelako gizonak Martin Azpilikueta "Doctor Navarrus", Xabier Deunaren osaba bat, edo

Aita Domingo Bañez, Mondragoitar bat.

Ez da agortu orain antxiñako egunetako buru-argitasun ori. Gure egunotan be or izan dogu Xabier Zubiri, filosoforik goren-goenetakoa. Arkeologian, barriz, naziño-arteko jakitunen artean, or doguz, besteak beste, Joxe Miel Barandiaran abadea, eta izkuntzarloan Azkue ta Koldo Mitxelena. Nork ez daki Txillidak eta Nestor Basterretxeak eskultura-munduan zer esan nai daben?

Ameriketan ezin leikee aztu Biazkai-ko seme baten ondorengo zan Simon Bolibar-ek ango lurraldeak azkatu ebazala.

Euzkera

Ama Euskera dogu gure asabak itxi euskuen doarik baliotsuena. Zer esan geinke esan ez danik gure izkuntzaz? Nai ta askotan geu seme biurriak agertu amari buruz, or dago mundu guztiaren aurrean gure ama ori goratzarreak jasoten. Euzkera antxiñakoa da, beste gitxiren bestean, baiña baita gaurkoa be, oraindikan bizi-bizi, eta bere semeok esker-txarrekoak gertaten ez ba'gara, berbizkunde zoragarria ikusiko dauna. Guztion laguntzaz iñoiz baiño dotoreagoa erakutsiko dogu bere arpegia, arpegia, gaurko seme artean darabilguzan burrukak, eta zetakeriak alde batera lagaten ba'doguz beintzat. Ama on onek naiko buruauste jasan bear izan dauz, semeak bere altzoan batu-eziña ikusiaz.

Amarengan bat egin gaitazan, euzkaldunok?

JOSEBA ZUBIKARAI

ATXAKIRIK EZ, MESEDEZ!

"Esaten dabe: Euskera oso gatxa dala ikasteko. Euskera egiz maite dabenak ori ez dausku esango; langille txarrak atxaki asko beti dauka lanerako..."

...Eta Enbeita'k jarraitzen dau: "Besteak beingoan ikasten dabe ikasi nai dabelako, beste batzuk nagiagaitik itzi oi dabe geroko. Gauza bat orain gogoan artu

egi aundia dalako: Gure euskera bear bagendu ogi zuria jateko, aundi ta txiki, zar eta gazte danak leukie ikasiko".

ENBEITA'TAR BALENDIN

Euskera gatxa dala ikasteko? Gauza jakiña da, lan eta ikasketa guztiak erreztuteko beiñena dala zale-tasunez eta atsegiñez lan egitea ta ikastea... Benetako gogo biziáz".

Alan ba, bardin jazoten da euskerazko ikasketakaz: erreztu gura ba'doguz gogoz eta biotzez alegindu bear gara ikasteko.

Gañera, iraunkorra izan bear dan lez euskera naiz beste edozein gai menderatzeko, gogo orrek eta gura-ri orrek iraunkorra izateko indarra emoten dau... Bear-bearrezkoa dan indarra, ba iraunkorrek ez diranak beingoan ikasten ez ba'dabe, euskera gatxa dala esaten dabe, ta ikasteari agur egiten dautsoe.

* * *

Ezaguna da 3 bide-zaiñen gertaera edo jazoerea: askok dakizuenez, len erri askotan esaten zan bide-zaiñak geienetan gerizpetan egoten zirala bero egiten ebanean, eta aterpean euria egiten ebanean.

Egun baten, baserritar batek 3 bide-zain ikusi ebazan arri bat bide erditik erizerantza edo egalerantza eroan eziñik.

Bide-zaiñen ganorabakotasunagaz konturatu zanean, baserritarrak esan eutsen: "Itzi neuri, mesedez"... Eta arria artu ta egalera eroan eban. Orduan, bide-zaiñek esan eben:

"Arraio!... Indar egin ezkeru, edozeiñek".

* * *

Or dago untzea: Indar egin bear! Alegindu egin bear! Eta askok indarrrik ez dau gura egin, alegiñik ez dau gura egin, ez bearrerako, ez ikasteko...

Egun baten eskeko bateri itaundu eutsoen: "Kalean eskean ibilteaz ez zara lotsatuten?".

Eta eskekoak erantzun eban: "Egia esan, niretzako atsegintsuako izango litzake eskesari edo amoina etxera eroango ba'leuste".

Esan leike barrea eragiteko jazoerea dala, baiña, zoritxarrez, asko dira euren bizimodua ezertariko alegin barik atondu gura leukienak.

* * *

Euskereagaz bardin jazoten da: "Pentsaten ba'dozue ikasteko gatxa dala, astirik ez daukazueta, zarrak zareala, izkuntzak ikasteko erreztasunik ez daukazueta ta abar, euskera ez dozue iñoiz ikasiko.

Baiña orreik ATXAKIAK alde batera itzita, maitasunez eta gogo biziáz alegintzen ba'zarie ikasteko, ziur izan ikasiko dozueta, beste batzuk ikasi daben lez!

Sabin amazapi urte ebazala asi zan euskera ikasten, eta Sabin'en bizitzako urteak ez ziran asko izan, baiña ez bakarrik berbetan, idazten be ikasi eban, eta euskereari berak emon eutson iñok baiño indar eta bizi-tasun geiago. Artu, ba, Sabin ereduzko!

BILBAO'tar JON E'k

VZAR

Colón de Larreategui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia